

EUSKARAREN EZAGUTZA
ARRASATEN
1981-2001 ALDIAN

Euskara Zerbitzua
Arrasate, 2004ko urria

1.- Sarrera.

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) egindako errolda et zentsuetan euskarari buruzko galderak sartu dira. Horri esker, EAEko biztanleen hizkuntza gaitasunaren eta ama hizkuntzaren berri jakiteko aukera dugu, besteak beste. 1981ean egindako udal erroldan jaso ziren lehen aldiz EAEko biztanleen hizkuntza gaitasunari buruzko galderak. Geroztik bost urtean behin egin dira biztanleen udal erroldak. Azkena 2006an egin zen eta euskarari buruzko daturik ez zen jaso. Horren partez, halako estimazio moduko batzuk egin ditu EUSTATEk. Emaitzak, ordea, ez dira aurreko errolda eta zentsuetako datuekin alderatzeko modukoak. Hori dela eta, 2006ko datuak ez ditugu txosten honetan aintzat hartu.

EUSTATEk udal erroldaren bidez bildutako datuei esker, beraz, badakigu zein bilakaera izan duen Arrasateko biztanleen hizkuntza gaitasunak azken 20 urteotan. Izan ere, dagoeneko lau udal erroldako datuak dauzkagu, adinaren eta sexuaren arabera jasotakoak. Biztanleen hizkuntza gaitasunari buruzko datuez gainera, haien ama hizkuntza eta familiako hizkuntza erabilerari buruzko datuak dauzkagu.

2.- Euskararen ezagutza Arrasaten 2001ean.

2001 urtean 23.118 lagun bizi ziren Arrasaten, urte horretan EUSTATEk egindako udal erroldaren arabera. Horietatik erdiak baino gehixeago euskaldunak ziren; lautik batek ez zekien euskaraz; eta,%18k zerbait zekien. Alabaina, adinaren arabera asko aldatzen da euskararen ezagutza: haurren %86k zekien euskaraz, gazteen %88k, helduen %44k eta adinekoen %52k (ikusi 1. taula).

Euskaraz ondo ez jakin arren, arrasatearren %18k bazekien zerbait (taulan euskaldun hartzaile moduan agertzen dira). Helduen %24 dago zerbait zekitenen multzo horretan. Zerbait dakitenen heldu horietako asko eskolan edo euskaltegian ikasitakoak izango dira, ziur aski, eta banaka batzuk ama hizkuntza euskara izaki euskara kamustua dutenak.. Gainontzeko adin taldeetan %8-10ek zekiten zerbait. Euskaraz bat ere ez zekitenei dagokienez, 65 urtetik gorako arrasatearra ziren erdaldunenak (%40) eta ondoren helduak (%32). Nolanahi ere, adin talde guztietan gehiago ziren euskaraz zekitenak bat ere ez zekitenak baino.

Auzotik auzora, ordea, euskaldunen dentsitatea oso ezberdina zen (ikusi 2. taula). Erdialdea zen Arrasateko auzorik euskaldunena: Arrasateko hiru euskaldunetik bat auzo horretan bizi zen. Auzorik erdaldunena, berriz, Santa Marina zen.

1. taula: Arrasateko biztanleen hizkuntza gaitasuna adinaren arabera (2001 urtea)

Adina	Euskaldunak		Euskaldun hartzaileak		Erdaldunak		Guztira	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Haurrak	1.922	86	228	10	89	4	2.239	100
Gazteak	2.887	88	264	8	134	4	3.285	100
Helduak	5.842	44	3.194	24	4.236	32	13.272	100
Adinekoak	2.009	52	315	8	1.544	40	3.868	100
Guztira	12.660	56	4.001	18	6.003	26	22.664	100

Iturria: EUSTAT, 2001eko zentsua. Bi urtetik gorako biztanleei buruzko datuak.

2. taula: Euskararen ezagutza auzoka

Auzoa	Euskaldunak
Erdialdea	68
Musakola	55
San Andres	46
Santa Marina	28
Uribarri-Erguin	58
Baserri auzoak (*)	48
Arrasate	56

Iturria: EUSTAT, 2001eko zentsua. Datuak %tan daude.

Bestalde, esan beharra dago Arrasate zela, Eskoriatzarekin batera, Debagoieneko herrietan euskaldunen portzentajerik txikiena zuena (ikus 3. taula). Izan ere, Debagoieneko biztanleen %66 euskaldunak ziren bitartean, Arrasateko euskaldunen portzentajea %56 zen.

3. taula: Debagoieneko biztanleen hizkuntza gaitasuna (2001 urtea)

	Euskaldunak	Euskaldun hartzaileakak	Erdaldunak
Antzuola	77	8	16
Aramaio	86	9	6
Aretxabaleta	65	17	18
Arrasate	56	18	26
Bergara	70	14	16
Elgeta	85	10	5
Eskoriatza	59	15	26
Leintz-Gatzaga	77	19	5
Oñati	79	11	10
Debagoiena	66	15	19

Iturria: EUSTATEk 2001ean egindako zentsua. 2 urtetik gorako biztanleak

3.- Euskararen ezagutzaren bilakaera Arrasaten 1981-2001 aldian.

Goian esan bezala, 1981eko udal erroldan sartu ziren lehenengo aldiz euskarari buruzko galderak. Geroztik, bost urtean behin jaso dira EAEko udalerrietako hizkuntza gaitasunari buruzko datuak, 2006an izan ezik. Esku artean dauzkagun azken datuak, beraz, 2001ekoak dira.

Aldi horretan –1981etik 2001era bitarteko aldian, alegia– asko aldatu zen Arrasateko biztanleria, bai biztanle kopuruari dagokionez bai egitura zein beste ezaugarri batzuei dagokienez ere. 1981 urtean 26.045 biztanle zituen Arrasatek; 2001 urtean, berriz, 23.118. 2001ean Arrasaten bizi ziren herritarren %18 inguru 1981 urteaz geroztik jaiotakoa zen. Are gehiago, gehienek eskolan euskaraz ikasitakoak ziren, D edo B ereduan. Bestalde, aldi horretan 5.000 lagun inguru etorri ziren Arrasatera bizi izatera eta, aldi berean, 8.500 lagun inguru joan ziren Arrasatetik beste norabait bizi izatera.

Azken urteotan behera egin du Arrasateko biztanleen kopuruak: 1981-2001 aldian 2.927 biztanle galdu zituen Arrasatek. Euskararen ezagutzaren bilakaerari dagokionez, ordea, euskaldunen kopuruak gora egin zuen Arrasaten 1981etik 2001era bitartean; erdaldun elebakarrenak, aldiz, behera. Hogei urteotan, Arrasatek 2.704 euskaldun irabazi zituen, biztanleak galduta ere. Bestalde, 1981ean Arrasateko

biztanleen %39 euskaldunak ziren bitartean 2001ean %56 ziren euskaldunak. Hortaz, bada, 17 puntu hazi zen euskaldunen portzentajea (ikus 3. taula). Edonola ere, hazkunde horren erritmoa motelduz joan zen, jaiotza tasa asko jaitsi zelako 1981-2001 aldian: hainbestera moteldu zen, ezen 1981etik 1996ra bitartean, urteko puntu bat hazi zen euskararen ezagutza, eta azken bost urteotan, puntu erdi urteko.

Adin talde guztietan eman zen euskararen ezagutzaren hazkundera, adinekoen taldean izan ezik. Gazteen taldeak izan zuen gorakadarik handiena: gazteen ezagutza maila ia hirukoiztu egin zen. Haurren ezagutza maila ere asko hazi zen, baina gazteena baino gutxiago.

4. taula: Euskararen ezagutzaren bilakaera Arrasaten (1981-2001)

	Euskaldunak	Ia euskaldunak	Erdaldunak
Haurrak			
1981 urtea	40	16	44
2001 urtea	86	10	4
Gazteak			
1981 urtea	31	21	47
2001 urtea	88	8	4
Helduak			
1981 urtea	39	10	51
2001 urtea	44	24	32
Adinekoak			
1981 urtea	53	2	44
2001 urtea	52	8	40
Guztira			
1981 urtea	39	13	48
2001 urtea	56	18	26

Iturria: EUSTAT, 1981 eta 2001eko erroldetako eta zentsuetako datuak. Datuak %tan daude.

Hezkuntza sistemaren euskalduntzeak eragin handia izan zuen euskaldunen kopuruaren hazkundera. Izan ere, gaztelania edo beste erdararen bat ama hizkuntza zuten haurren %84 eta gazteen %77 euskaldunak ziren 2001ean, urte horretan egindako udal erroldaren arabera. Helduen eta adinekoen kasua ezberdina zen: asko ziren euskara ikasi duten helduak eta adinekoak, baina haur-gazteak baino askoz gutxiago. Euskara ama hizkuntza ez zuten helduen eta adinekoen %15 ziren euskaldunak. Bestetik, 1981etik 2001era bitartean haur eta gazte euskaldunen portzentajea bikoiztu egin zen. Hogeita bost urtetik gorako biztanleetan ere hazi egin zen euskaldunen portzentajea, baina hazkundera askoz txikiagoa izan zen, %41etik %46ra baino ez zen pasatu eta (ikusi 4. taula).

Hezkuntza sistemari esker –eta, hein txikiagoan, helduen euskalduntzeari esker–, gero eta handiagoa da euskaldun berrien kopurua eta portzentajea euskaldunen artean. 2001ean Arrasaten bizi ziren 12.660 euskaldunetatik 3.207 euskaldun berriak ziren, hau da, euskaldunen %25. Askoz ere handiagoa da portzentaje hori haur eta gazteetan: 2-24 urteko euskaldunen %40k zuten gaztelania ama hizkuntza. Helduetan, berriz, euskaldun berrien proportzioa asko jaisten zen, heldu euskaldunen %20 baino ez baitzen euskaldun berri. Are txikiagoa zen euskaldun berrien garrantzia 65 urtetik gorako euskaldunetan.

5. taula: Hezkuntza sistemaren eragina euskararen ezagutzan

	Haurrak eta gazteak	Helduak eta adinekoak	Guztira
1981 urtea			
Euskaldunak	3.820	6.136	9.956
Euskaldunen %	36	41	39
2001 urtea			
Euskaldunak	4.809	7.851	12.660
Euskaldunen %	87	46	56

Iturria: EUSTATEk egindako erroldak eta zentsuak. 2 urtetik gorako biztanleen datuak jasotzen ditu taulak.

6. taula: Euskararen berreskuratzea Arrasaten

Adina	Euskaldunak (%)	Ama hizkuntza euskara dutenak (%)	Berreskuratzea (%)
5-9	90	60	30
10-14	94	54	40
15-19	91	50	41
20-24	86	45	41
25-29	66	44	22
30-34	46	34	12
35-39	43	35	8
40-44	41	34	7
45-49	38	33	5
50-54	39	35	4
55-59	37	33	4
60-64	39	35	4
65-69	42	40	2
70-74	52	49	3
75-80	59	56	3
80-84	61	60	1
>=85	59	57	2

Iturria: EUSTAT, 2001eko zentsua.

Euskaldun berrien ugaltzeari esker, Arrasateko hizkuntza egoera erabat aldatu da. Hizkuntza egoeraren aldaketa onerako izan da, jakina. Alabaina, euskaldun berrien ugaltzeari esker euskaldunen kopurua hazi izanak beste aldaketa bat eragin du: gero eta gehiago dira gaztelania ama hizkuntza duten euskaldunak eta, beraz, gero eta gutxiago dira euskaraz gaztelaniaz baino errazago hitz egiten duten euskaldunak. Ildo horretatik jarraituz, Hizkuntza Politikarako Sailordetzak egindako Euskal Herriko Soziolinguistikazko Inkestaren arabera, EAeko euskaldunen herenak bakarrik dauka erraztasun handiagoa euskaraz hitz egiteko gaztelaniaz hitz egiteko baino. Hau da, euskaldunen kopuruak nabarmen gora egin duen arren, euskaraz gaztelaniaz baino errazago hitz egiten duten elebidunen kopurua ez da hainbeste hazi. Gauzak horrela, euskal hiztunen artean gertatzen ari den aldaketa kualitatibo horrek eragin zuzen-zuzena du euskararen erabileran. Izan ere, inkesta soziolinguistikoeek eskainitako datuetan oinarriturik egindako azterketen ondorioek argi eta garbi erakutsi dute bi faktore direla, batik bat, euskararen erabileran eragiten dutenak: harreman sareko euskaldunen portzentajea eta norbanakoen ezagutza erlatiboa (euskaraz gaztelaniaz baino erraztasun handiagoz hitz egitea). Arrasaten euskaldunen

portzentajeak gora egin du eta, beraz, gero eta errazagoa da eremu guztietan mintzakide euskaldunak izatea. Horrek eragin positiboa dauka euskararen erabileran. Baina, arrasatear euskaldunen ezagutza erlatiboak behera egin du eta horrek eragin negatiboa dauka euskararen erabileran. Hortaz, bada, ezinbestekoa da euskaldun berriek bere seme-alabei euskara etxetik transmititzea, aspaldiko urteotan euskaldun zahar gehienek egiten duten bezala, aurrerantzean euskararen ezagutza erlatiboa hobetuko bada eta, ondorioz, euskararen erabilera ere handituko bada.